

Arabako ekialdea eta Sakanako continuumaren azterketa diakronikoa

JOSE LUIS ERDOZIA MAULEON*

Artikulu honetan Arabako Ekialdeko garai bateko euskara eta Sakanakoaren arteko kideetasunak aztertu nahi ditut. Horretarako, orain galdua baitugu ia Araba osoan garai bateko euskara, XVI., XVII. eta XVIII. mendeko zenbait material baliatuko ditut eta horiekin batera Sakanako egungo hizkera eta baita toponimia eta lexikoa ere. Aipatu materialak ondorengoak dira: Nicolao Landuchio italiarraren *Dictionarium Linguae Cantabrigiae* (DLC hemendik aurrera) (1562), Joan Perez de Lazarragaren 1567ko eskuizkribua, Martín Portalen *Romance del Santísimo Sacramento en bascuence* izeneko poesia (1610), Altsasuko 1645eko auziko euskal testuak¹, Joan Bautista Gamiz (1696-1773) sabandoarraren bertsoak, Julian Garcia de Albeniz araiarraren eskuizkribua (1778), Jose Antonio Gonzalez Salazarren *Toponimia Alavesako* Lautadari dagokion alea, Gerardo Lopez de Gereñuk Araban jasotako hitz multzotik Koldo Zuazok² egindako euskal hitzen zerrenda, eta, azkenik, *Nafarroako Toponimia eta Mapagintza IX. alea*.

LANDUCHIOREN HIZTEGIA (1562)

Landuchioren hiztegia goitik behera aztertu eta egungo Sakanakoekin erkatu ditut bertako burutzapenak, nolabaiteko lotura edo harremana erakusten dutenak jarraian komentatuko ditudalarik.

Loyaquin olçac varr(i)tu ‘abarrar la pared’ dakar zortzigarren tokian italiarraren hiztegiak eta askoz aurrerago *loyta sartu* ‘atollar en lodo’ eta *loyaquin ysçi* embarrar’. Izagirrek Altsasurako *lokatz* dakar, baina nik *loi* jaso dut

* Euskal Filologian doktorea

¹ Jose Luis Erdozia Mauleon, “Euskal testuak Nafarroan XVII. mendean”, *FLV*, 99, 2005.

² Koldo Zuazo, *Arabarrak Euskararen Herrian*, Arabera, 1999.

Sakana erdialde osoan eta baita Urdiainen (Burundako bihotzean) ere. Hemen gainera, soziatibo kasuko morfema erdialde eta ekialdekoa dugu, eta ez mendebalekoa. Bestalde, *oltza* erabiltzen da Etxarri Aranatzan pareta adierazteko, ondorengo bi esaera hauetan ikus daitekeen moduan: *Sasiyek begiyek, oltzak belarriyek! Jo zak oltza ta aize soorra!* Urdiainen, aldiz, *esola* erabiltzen dute. Eta XVII. mendean, Aritzaletako jauregiari buruzko 1602. urteko testuan³, hemengo moduan erabili zuten: ... *orrelatan emen hecha gorpuz andia oy çen olçeç heracusten duten beçan bates...*

Errequea ‘abarrancadero, açequia’ dugu hurrengo burutzapena. *Erreka* erabiltzen da Sakana osoan ibaitxo txikia adierazteko. Bukerako bokalei dagokienez, egun Burundan suertatzen den bilakabidearen antzekoa genuke: *-a + -a > -ea (> -ia > -ii > -i)* disimilazioa. Olaztiko toponimian *errotea* eta *Bargea* dauzkagu eta, bestalde, *-a* organikoa duten hitzak, absolutiboko morfema singularra eransterakoan, goraxeago aipatu moduan burutzen dira Burundan: *plazi, arrebi, gauzi...*

Véan, azpian ‘abaxo’. Bi burutzapenak, *bien* (behean) eta *azpiyen*, erabiltzen dira Sakanan, nahiz eta esanahi ezberdinekoak izan.

Erlateya ‘abejera’. Atzizki berbera erabiltzen da Sakanan, baina bereizketak bat kontuan harturik: Sakana erdialdean *-degi (-tegi)* erabiltzen da kasu guztietan (berdín zuhaitz, landare edo gainerako kasuetan: *arizdei, fagadei, piñodei, ixtordei, illerdei, ollotei...*) eta Burundan, berriz, *-di* eta *-aldi* atzizki eratorleak baliatzen dira zuhaitz eta landareen kasuetan: *araizdiya, pagadiya, sasidiya...* Olaztin, hala ere, *otadeya* toponimoa ageri zaigu. Bestalde *erlataya, bizartaiya, suteiya, artaiya...* dakartza Izagirrek.

Yracussi ‘abezar’. Hasierako erdiko bokala itxita ageri zaigu hiztegian eta ia Sakana osoan (Burunda, Lizarraga, Etxarri Aranatz eta Lakuntza) gauza bera suertatzen da, baina bilakabideak aurrera egin duelarik: *e_ > i* itxi ondoren, bokal arteko kontsonante dardarkaria erori eta hasierako bokal itxia kontsonantizatu egin da (*erakusi > irakusi > iakusi > yakusi*).

Croscatu ‘abollar’. *Koskatu* erabiltzen da Sakananeta koskak egin adierazten du.

Yguitu ‘aborrecer’. Antzeko burutzapena erabiltzen da Etxarri Aranatzan: *iguinddu*. Burundan *nazkatu* erabiltzen da eta Sakana erdialde gehienez *lazkatu*.

Besaca eguin ‘abraçar’. Sakanan *besarkatu* aditza erabiltzen da eta *besarka*, berriz, besokada adierazteko.

Ybaya ‘abrevadero de bestias’. Burundan *ibai* eta Etxarri Aranatzan *ibei* erabiltzen dira erreka baino handiagoko ur korrontea adierazteko. Arbizutik ekialdera *ubelde* (uralde).

Yregui ‘abrir’. Burundan eta Arbizun *irei*, Arruazun *iriki*, Irañetan *irii* eta gainerako Sakana erdialdean *irai* erabiltzen da. Arruazukoan izan ezik, beste guztietan kontsonante herskari belare ahostuna erori da. Etxarri Aranazkoan, gainera, diptongo bigarrenkaria ireki (*ei > ai*) egin da eta Irañetakoan $V_1V_2 > V_2V_2$ bilakatu (*ai > ii*).

Ostico emon ‘acoçar’. Sakana osoan erabiltzen da hemengo lehen burutzapena modu berean: *ostiko eman*.

³ Jose Luis Erdozia Mauleon, “Euskal testuak Nafarroan XVII. mendean”, *FLV*, 99, 2005.

Essin eta aurrerago *eşçin* eta *eşçina* ‘acostarse’ ‘arrojarse’ ‘echarse’. Antzeko moduan erabiltzen da Sakana osoan, *etzin*, eta Zuazoren (1995, 315) arabera bizkaieraren eremuko ekialdeko hizkerekin (Deba arrokoak gehienbat), gipuzkeraren hegomendebalekoekin (Zegama) eta behialako Arabakoarekin egiten du Sakanakoak lotura.

Jorraya ‘açadon’. Horrela erabiltzen da Burundan eta *jff* txandaketa (*förrer*) burutua Sakana erdialde osoan, baina ‘aitzur txikia’ adierazi bahi duelarrik.

Etorri onuç eta aurrerago *onusç* ‘açercarse’ ‘aquí hazia do estoy’. Sakana osoan modu berean erabiltzen dira hiru graduetako erakusleak adlatibo bi-dezuzeneko kasuan: *onutz*, *orrutz* eta *autz*.

Azcolchoa ‘acuela’. Aizkora txikia adierazteko antzeko burutzapena erabiltzen da Sakana erdialdean, *axkolto*.

Burniazco gauçea afileadu, aurrerago *burnia çorroztu* eta askoz aurrerago *burniazco ylçea* ‘afilar cosa de yerro’ ‘amolar yerro’ ‘clavo de yerro’. Nafarroa osoan bezala horrela erabiltzen da Sakanan lehen burutzapena: *burni* eta ez ‘burdin’. Bigarren burutzapenak, lehenago bigarren burutzapenean esan moduan, Burundan ohikoa den *-a + -a > -ea* disimilazio bilakabidearen lehen urratsa erakusten digu.

Aculladea ‘aguijonar con aguijon’. Burundan *akulu* Erronkarin bezala, Zaraitzu eta Aezkoan alboko kontsonantea palatalizaturik (*akullu*) eta Sakana erdialdean *akillu*.

Orrasza ‘aguja de coser’. Modu berean erabiltzen da Sakanan, *orraz*.

Çorraztu ‘aguzar’. Bigarren bokala aldaturik erabiltzen da Sakanan eta baita hasierako kontsonantea afrikatua duelarrik: *zorroztu*, *txorroxtu*. Lehena-goko burutzapen batean erdiko bokala erabili zuen Landuchiok.

Çorraztarria ‘aguzadera piedra’. Aurrekoaren kasuan bezala, *zorroztarri*, *txorroxtarri*. Dena den, (*d*)eztera burutzapena ere erabiltzen Sakana osoan gauza bera adierazteko.

Lezne ‘alesna para coser’. Etxarri Aranatzan punta zorrotzeko tresna da *lesna* eta, gainera, erantzun zakarra eman nahi denean ere erabiltzen da ondorengo esamoldea: *Bai, lesnak!* Gogoratu orain ere *-a* organikoa duten burutzapenen disimilazioa.

Ybili afa eguiten eta askoz aurrerago *pistian afa* ‘anidar hazer nido’ ‘nidal de aves’. Aipatzekoa da, Burundan bezala, lehen aditzaren kontsonante albokoa palatalizatu gabe ageri dela. Izenari dagokionez, aldiz, hasierako kontsonante herskari ahoskabea galdua du burutzapen hauetan, baina bi kasuetan ia Sakana osoan (Olaztin eta Altsasun *txofraki* ere bai) bezala, *VbV > VfV* bilakaera bete da. Burutzapen hau behe-nafarreran eta goi-nafarreran da ohikoa.

Ereztuna ‘anillo’. Horrela ia (*eraztun*) erabiltzen dute Arruazun; dardarkaria eroririk (*eaztun*) Uharte Arakilen; *aaztun* Unanun, Dorraon eta Arbizun; eta, azkenik, *yaztun* Burundan, Etxarri Aranatzan eta Lakuntzan. Ikusten denez bi bilakabideetako urrats ezberdinetan geratu dira aipatu burutzapenok: *eraztun > eaztun > iaztun > yaztun* batetik; eta *eraztun > eaztun > aaztun* bestetik.

Jasci ‘apearse’. Horrela erabiltzen da Sakana osoan: *ja(i)txi*, burutzapen diptongatua Burundan ohikoago delarik.

Gazcararraquin joa ‘apedrear con granizo’. Olaztin *kaxkaragarra* eta Sakanan, orokorrean, *kaxkar* edo *kazkar* erabiltzen da. Iribarren arabera Na-

farroako Erreka aldean ere *cazcabarra*. Erreparatu, bestalde, soziatibo kasuko morfema ez dela mendebalekoa, erdialde eta ekialdekoa baizik.

Yşçasçı ‘apegarse’. Burundan horrela ia, bigarren txistukaria afrikatu gabe, *itsasi*. Sakana erdialdean Burundaren moduan baina bigarren bokalak asimilazio aurrerakaria jasan duelarik: *itsesi*.

Lasterca ‘a priessa’. Modu honetan, kontsonante sudurkariaren protesia eta guzti (*lasterkan*), eta ez ‘korrika’ burutzapena erabiltzen da Sakana erdialdean. Burundan, berriz, *korrikan*.

Amarrasça ‘araña’. Zuazoren arabera (1998, 170-171) hauxe da arabako hizkerak mendebalarakin batzen dituen hitz multzo horietako bat, baina kontuan izan behar da Olaztin bertan ere ia modu berean erabiltzen dela burutzapen hauxe, *amarratza*.

Velaurico jarri eta *velaurico jarritea* ‘arrodillar’ ‘arrodilladura’. Euskal Herriko bazter gehienetan bezala, *belauniko* erabiltzen da Sakanan.

Chimurr eguin ‘arrugar’. Horrela erabiltzen da Sakana erdialdean, eta Burundan kontsonante txistukari frikaria daramalarik, *zimur(tu)*.

Eusçitecoa ‘asa para asir’. *Eutsi* aditza erabiltzen da Iturmendin eta *autsi* Burunda ia osoan. Bakaikun eta Sakana erdialde gehienean *auski(n)*, eutsi + egin elkarketatik datorrena seguru asko. Ikusten denez diptongo irekiera gertatu da burutzapen horietako zenbaitetan.

Yncarra brasea ‘ascua o brasa’. Lehenengo burutzapena da Sakana erdialdean erabiltzen dena, hori bai, bigarren bokalak asimilazio aurrerakaria jasan duelarik: *inker*. Urdiainen *txinar* erabiltzen da.

Çelata eguin ‘assechar’. Etxarri Aranatz eta Bakaikuko toponimian ageri da *zelatamuno*, eta honen ondoan beste ondorengoak: *bentatxar* eta *lapurbi-de*. Ez da, beraz, zalantzarik bere esanahiari dagokionez.

Yguzquita eguo da gauçea ‘asoleado al sol’. Hasierako e- bokalaren itxie-ra erakusten duen burutzapena dugu lehenengoa Euskal Herriko erdialde eta ekialdean suertatzen den moduan. Sakana osoan erabiltzen da *iruzki* burutzapena eta Urdiainen *yuzki*, ondorengo bilakabidea jarraitu duelarik: *e->-i*, *VKV>VV*, eta *i* bokalaren kontsonantizazioa. Aditz laguntzaileari dagokionean, mendebaleko euskalki multzoarekin bat datorren *-a + -e > a* bilakabidearen lekukotza dugu, eta hauxe bera gertatzen da Burunda osoan eta Etxarri aranatzan ere bai: *da + -en > dan*. Azken burutzapenari buruz, *-a* organikoduna, esana dago lehenago esan beharrekoa.

Bildurr egosçi ‘atemorizar’. Horrela erabiltzen da lehenengo burutzapena Sakana osoan, Erdiko bokala itxi egin delarik.

Orayno ‘aun’. Bukaera berbera erakusten dute Burunda eta Sakana erdialdeko burutzapenek, baina Nafarroara hurbiltzen duen *oa-* bokal multzoaren aurrean garatzen den *g-* herskaria harturik: *guaindo* Burundan eta *guaño* Sakana erdialdean.

Chixacurric nago ‘aver gana de mear’ eta *cacacurr nax* ‘aver gana de cagar’. *Kurre* atzizkia bera erabiltzen da ia Sakana osoan bi egoera hauek adierazteko. Eta ia Sakana osoan esaten nuen, Lakuntzan *kakagale* eta Ergoien *kakagorri* erabiltzen dutelako.

Vazinea ‘baçin’. Etxarri Aranatzan *paziñ* erabiltzen da, hasierako kontsonante ezpainetako ahostunaren orde, ahoskabea baliatzen delarik. Italiarrak *-a* organikoa erantsi zion, ikusten denez.

Lurruña ‘baho’. Horrelaxe erabiltzen dute Burundan, baina kontsonante sudurkaria palatalizatu gabe. Sakana erdialdean *lurriñ* erabiltzen da.

Alquia ‘banco’ eta aurrerago burutzapen berbera ‘escaño de asentar’. Horrelaxe, era monoportongatuan, erabiltzen da ia Sakana osoan, Uharte Arakilen diptongoa mantentzen delarik: *aulki*.

Yssuçi eta gero zuzendua *içussi* ‘barrer’. Lehenengo burutzapenaren moduan erabiltzen da Sakana osoan, baina ia kontrako esanahia hartzen duelarik, *isutsi*-k hazia edo edo beste gai bat sakabanatzea edo ereitea esanahi baitu aipatu eremuan.

Varrinoyá ‘barreña’. Gaztelaniako burutzapena, *barreño -uel-ua*, erabiltzen da Sakanan.

Edavea ‘bebida’. *D/r* kontsonante txandaketa buruturik erabiltzen da Sakana erdialdean, eta hiztegian bésala, berriz, Burundan. Hala ere, hiztegian agertzen den gaztelaniako ordaina adierazteko *edai/erai* erabiltzen da Sakanan, eta *edabe/erabe* batuko edabea (gaztelaniako ‘pócima’) adierazteko.

Agua ‘boca’. Horrelaxe erabiltzen da (kontsonante herskari belare ahostuna duen burutzapena) Sakana osoan mendebalekoan, Baztanen, Aezkoan, Zairaitzun eta Lapurdiko kostaldean zabalduz dagoen burutzapen hau.

Yşçaya ‘boyero’. Horrelaxe jaso zuen Izagirrek Altsasun, *itzaiya*, eta diptongoko bokal irekia asimilaturik erabiltzen da Sakana erdialdean eta Ultzama aldean ere bai.

Aricoa ‘borrego’. Horrelaxe esaten zaio Sakana osoan ahari gazteari eta *arisco* jaso zuen Iribarrenek Lizarraldean.

Guiçonan escuturra ‘braço de hombre’. Lehen hitzari dagokionez, modu berean burutzen da Sakanan edutezko genitiboaren morfema kontsonantez bukaturiko lexemari eransten zaionean, ondorengo bilakabidea izan duelarik: *gizonaren* > *gizonaen* (bokalkarte dardarkari xamurraren galera) > *gizonaan* ($V_1V_2 > V_1V_1$) > *gizonan* ($V_1V_1 > V_1$). Bigarren hitza, burutzapen sinkopatua, hots, horrelaxe erabiltzen da Sakana gehiengan (Lizarragabengon, Arbizun, Arruazun eta Uharte Arakilen sinkopatu gabe, *eskumutur*) eta baita Bizkaiko zenbait hizkeratan eta Nafarroako Oltzan ere.

Cruselua ‘candil’. *Kriseilu*, kontsonante albokoa palatalizatu gabe, eta *kri-seillu*, palatalizaturik, dira burutzapen ezagunak, lehena Burundan eta bigarrena Sakana erdialdean eta Euskal Herriko erdialde eta ekialde gehiengan.

Carranquea, *yssosça* ‘carambano’ eta aurrerago *carrancatua* ‘do elado’ eta *yşosça*, *carranquea* ‘elada o yelo’. Ekilade eta erdialde gehiengan erabiltzen da bigarren burutzapena, eta baita mendebaleko hizkera bakarren batean. Horrelaxe ere, *izotz*, baliatzen dute Sakana osoan. Lehen burutzapena ez da ezaguna gaur egun Sakanan, baina Izagirrek *garranga* jaso zuen Altsasun eta Ana Maria Echaidek burutzapen berbera Ziordin. Bestalde, elurra izoztu edo gogortu egiten denean, Etxarri Aranatzek *korromatu*, Lakuntzan *karromatu* eta Arruazun *kurromatu* burutzapenak erabiltzen dira.

Arraunça cascola ‘cascara de huebo’. Monoportongaturik erabiltzen da leen hitza Sakanan, *arrantzale* erdialdean eta *arrantza* Altsasun eta Uharte Arakilen. Bestalde, *kaskal* erabiltzen da Sakana osoan (Lakuntza *koxkol*).

Yşçego ‘cabalgar’. Burutzapen berbera, *itzo(o)*, baina ondorengo bilakabidea jarraitu duelarik erabiltzen da Sakana erdialdean: *itzego* > *itzeo* (bokalkarte herskari belare ahostunaren galera) > *itzoo* ($V_1V_2 > V_2V_2$) > *itzo* ($V_2V_2 > V_2$). Burundan, Uharte Arakilen eta Irañetan, berriz, *iyó*.

Apaeça ‘clerigo’. Altsasun *apaiza*, Urdiainen eta Bakaikun *apiza* eta Sakana erdialdean *apeza* dira erabiltzen diren burutzapenak Sakanan.

Ollo cloquea ‘clueca gallina’. *Ollo loka* erabiltzen da Sakanan, Euskal Herri gehiengan bezala.

Eztaldu ‘cobrir’. Oso ohikoak dira partizipio analogikoak Sakanan (*ibildu, izendu, jakindu, yonduleondu/oondu, bieldu...*), baina burutzapen zehatz honi dagokionez, soilik Altsasun (Eizagirreraren arabera) eta Lakuntzan erabiltzen da, *estaldu*.

Osticoa ‘çoçe’. Modu berean, *ostiko*, erabiltzen da Sakana osoan.

Vuztayña ‘cola de animal’. Urdiainen bokal irekia asimilatu gabe, baina, bestela, Sakana osoan erabiltzen da burutzapen hau: *buzten*. Zakila adierazteko ere erabiltzen da.

Masç maquia ‘colgajo de ubas’. Burutzapen ezberdinak daude Sakanan: *maskilo* Urdiainen eta Bakaikun; *matsakillua* Unanun; *mats arrama* Irañetan; eta, azkenik, *mats pokillo* Etxarri Aranatzan.

Columnea, pilarea ‘columna’. Lehen hitza ez da Sakanan erabiltzen, eta bigarrena, berriz, bai, alboko kontsonantea palatalizaturik eta bokal irekia asimilaturik, *pillere*, Etxarri Aranatzan, Lizarragabengon eta Arbizun Sakana erdialdean, eta baita Ultzaman eta Baztanen ere.

Ogui ta gatzaya vel ergunedia ‘comadreja’. Ia burutzapen berbera, d/r txandaketa buruturik, *erguneril/ergunera*, erabiltzen da Altsasun Izagirreraren esanetan eta Urdiainen. Sakanako gainerako herrietan, antzeko burutzapenak ditugu: *erguniri* Arakilen; *erginurde* Bakaikun; *ergueniri* Etxarri Aranatzan; *ergoniri* Ergoienen, Irañetan eta Lizarragabengon; eta *errekoniri* Arbizun.

Aytapontecoa ‘compadre’ eta aurrerago *amapontecoa* ‘madrina de bautismo’. Horrelako burutzapenak daude Lizarragan (*attepunteko*), Bakaikun eta Altsasun (*aitapuntako*), eta Urdiainen (*aitaponteko*), baina aitaorde esanahiarakin. Sakana erdialdean *aittejunteko* erabiltzen da eta Arakil aldera, aldiz, *aittegutxilettegutxi* moduko burutzapenak ageri dira. Bigarren burutzapenari dagokionez, berriz, *amapuntako* erabiltzen da Altsasun eta Lizarragan.

Evagui ‘cortar’. Kontsonante herskari belarea erori delarik ageri da hizkera gehienetan Sakanan burutzapen hau, *ebai*. Hala ere, Olaztin eta Irañetan hiztegian ageri den bere horretan erabiltzen da, *ebagi*.

Nescatoa ‘criada’ eta aurrerago ‘moçuela’. Neska izenaren ordean erabiltzen da burutzapen hau, *neskato*, Sakana erdialde osoan. Burundan *nesaki* erabiltzen da.

Gazaguia ‘cuajo para cuajar’. Hiztegian bezalaxe erabiltzen da egun Bakaikun, eta herskari belare ahostuna galdurik, *gatzai*, Altsasun eta Sakana erdialdean. Irañetan *gatzakoi*, Unanun *gatzikoi* eta Urdiainen *gatzoki* erabiltzen da, bestela.

Çaguia ‘cuero’. Ia Euskal Herri osoan bezala *zagi* erabiltzen da Sakanan ardo gorde eta garraiatzeko larrua adierazteko.

Yncarra ‘çentella de fuego’. Horrela, baina bokal irekia asimilaturik, *inker*, erabiltzen da Sakana erdialdean. Burundan, aldiz, *txinar* burutzapena erabiltzen da.

Arguyçaya ‘cera’. Sakana osoan erabiltzen da mendebalean eta erdialdean ezaguna den burutzapen hau: *argizai*.

ysçi ‘çerrar’. Sakana osoan, bizkaieran eta gipuzkeran bezala *itxi* erabiltzen da, baina Uharte Arakildik aurrera *ertxi* burutzapena ageri da.

Yşqua ‘ciego’. *Itxu* erabiltzen da Sakana osoan.

Çiria ‘cuña para hender’. Horrela erabiltzen da Sakana ia osoan. Bakaikun *zurzi* (zur + ziri) ageri da.

Masustea ‘carça mora’. Horrelaxe erabiltzen da Sakana erdialdean. Burundan, aldiz, ondorengo burutzapenak ageri dira: *maxurta* Bakaikun, *matxurreta* Urdiainen eta *masurta* Altsasun. Irañetan, bestalde, *martutse* erabiltzen dute.

Guipullea ‘çebolla’. Burundan ere hasierako kontsonantea herskari belareta daramala erabiltzen da, baina haxe ahoskabea delarik, *kipula*. Sakana erdialdean, aldiz, *tipulela* erabiltzen da.

Vaya ‘çedaço de çerdas’. Horrela erabiltzen da Burundan eta Sakana erdialde ia osoan, *bayela*. Arbizon *beya* ageri da, eta Arruazun, Irañetan eta Hiriberrin *bei* osagaitzat duten burutzapenak baliatzen dituzte: *agozbei* (bahe handia) eta *larrubei* (bahe txikia).

Oloa ‘çenteno miesse’. Sakana osoan erabiltzen da *olo*, baina gaztelaniaz ‘avena’ delakoa izendatzeko.

Çapelaria ‘çernicalo ave’. Urdiainen *kapelats* erabiltzen dute, eta antzeko burutzapena Irañetan, *txapelatxa*. Etxarri Aranatzen eta Unanun, bestalde, *txoriña(nza)le* erabiltzen dute.

Garagarra ‘çevada’. Hiztegian bezala erabiltzen da Burundan, eta Sakana erdialdean, aldiz, bokal arteko dardarkaria erori delarik, *gaagar*.

Guerrria ‘cintura’. Horrela erabiltzen da Sakana osoan.

Ocaran passea ‘ciruela pasa’. Bokal berdinen arteko dardarkaria erori delarik, *okaan*, erabiltzen da burutzapen haxe Sakana osoan.

Narruac çurradu ‘çurrar queros’. Burundan horrela erabiltzen da, hots, hasieran kontsonante sudurkaria daramalarik, eta behin Etxarri Aranaztik ekialdera l/n txandaketa suertatzen da: *larru*.

Aunchumea ‘chibo o cabrito’. Diptongoa monoptongaturik, *antxume*, erabiltzen da Sakana osoan. Uharte Arakilen, berriz, *aintxume*.

Chorroa ‘chorro’. Etxarri Aranatzen eta Lizarragabengon horrela esaten zaio arropa garbitzeko harrizko ontziari, eta Urdiainen burutzapen hau kainua edo iturria adierazteko erabiltzen dute.

Asç chiquirra ‘dedo meñique’. Urdiainen *txingar* eta Etxarri Aranatzen eta Lizarragabengon asimilaturik, *bietz txinger*, erabiltzen da.

Madurea ‘dehesa’. Agurainen toponimo moduan ageri da *madura*, eta baita Bakaikun ere, toki heze eta urtsuak direlarik biak.

Guztiz ‘del todo’. Sakana erdialdean *guze* burutzapena erabiltzen da, baina Urdiainen *guzti* ageri da, hiztegian bezala.

Çainetati ‘de raiz’. Burundan horrela erabiltzen da eta Sakana erdialdean diptongoaren itxiera jasan duelarik: *zeiñetati*. Bestalde, nafarrera gehienez bezala, deklinabideko ablatiboko morfemak ez darama bukaeran kontsonante herskari belare ahoskaberik eta, jakina, horixe bera gertatzen da Sakana osoan.

Escubia ‘derecha mano’. Horrela erabiltzen da Sakana guztian erdialdeko hizkeraren antzera.

Chimurrac quendu ‘desarrugar’. Kontsonante txistukaria afrikatu gabe erabiltzen da Sakana osoan, *zimir*. Aditza, bestalde, horrela, herskari belare ahoskabea daramalarik, erabiltzen da Burundan eta Irañetan. Sakana erdialdean, aldiz, *genduljendu* baliatzen dituzte.

Cabrestua que du ‘descabestrar’. Ia modu berean, metatesia eta guzti, baina kontsonante ezpainetako ahostuna beharrea ahoskabea duelarik, *kaprestu*, erabiltzen da Sakana osoan.

Gateac quendu ‘descadenar’. Horrelaxe, herskari belare ahostuna hasieran duela, erabiltzen da Burundan. Sakana erdialdean, berriz, ahoskabea ageri da: *kate*.

Surra quendu ‘desnarigar’. Izagirrek Altsasun *sugurra* jaso zuen, baina guk Urdiainen, Bakaikun eta Sakana erdialde osoan hiztegian bezala jaso dugu, *su(u)r*, bokal berdinen arteko hortzetako herskari ahostuna erori delarik.

Yrasçarri ‘despertar’. Burundan *esenatu*; Etxarri Aranatzan, Arbizon, Lizarragan, Dorraon eta Arruazun *esnatu*; baina Unanun, Lakuntzan, Uharte Arakilen eta Irañetan *itzerri* eta Urritzolan *yatzarri* burutzapenak jaso ditut. Azken bi hauek, ikus daitekeenez, hiztegiko burutzapenetik eratorriak ditugu.

Losça vaguea ‘desvergonçado’. Oso antzeko burutzapenak baliatzen dira gaur egun Sakana osoan: *lotsabaiko/lotsabeiko* Burundan; *lotsabaia* Arbizon eta Lizarragabengon, eta *lotsabeko* gainerako herrietan. Bestalde, Etxarri Aranatzan *neibagie* burutzapena erabiltzen da ondoeza adierazteko eta, ikusten denez, bigarren osagaia hiztegiokoaren modukoa dugu.

Domequea ‘domingo’. Horrela erabiltzen da Burundan, baina *iyende* Sakana erdialdean eta Arakilen.

Yraun ‘durar’. Modu berean Sakana osoan. Lizarragan bokal arteko dardarkaria galdurik, *iaun*.

Vidaldu ‘empiar’. Lakuntzan eta Uharte Arakilen *biyeldu* erabiltzen dute. Burundan eta Sakanako gainerako herrietan *bialdu/bieldu*, bokal arteko herskaria galdu duelarik. Sakana osoan hain ezagunak diren partizipio analogikoetako bat izango genuke hauxe.

Eratu ‘enloquecerse’. Hiztegian bezala eta ez *erotu* ageri zaigu Sakana guztian.

Çiatu ‘ensevar’. Etxarri Aranatzan eta Urdiainen *ziyetu* erabiltzen da eta Iribarrenek Iruñan *cear* jaso zuen. Orotarikon horrela dago jasoa Tolosaldean, goi-nafarreran eta Erronkarin erabiltzen dela gaineratzen duelarik.

Çapoa ‘escaravajo’. Zomorro edo edozein intsektu adierazteko erabiltzen da Etxarri Aranatzan eta Urdiainen. Orotarikon ere horrela ageri da bigarren adieran Erronkarirako.

Çurra ‘escasso avariento’. Horrela erabiltzen da Sakana osoan ondorengo esatera zaharrek erakusten moduan: *Zeiten zur, ta iriñetan abar! Zurran poltsak lau zulo!*

Tu eguin, (B) *vel ystu* ‘escopir’ eta bukaera aldera *tua* ‘saliba de boca’. Hiztegian bezala, *tu*, Burundan. Etxarri Aranatzan, Lizarragabengon, Arbizon eta Lakuntzan *txu*. Unanun, Doraron eta Uharte Arakilen *leixtuballistube*.

Pisça ‘espuma’. Horrelaxe erabiltzen da Burunda osoan. Sakana erdialdean eta Arakilen, berriz, *apar* erabiltzen da.

Ollateya ‘gallinero’. Ikusi zerrenda honetako laugarren burutzapenean esandakoa.

Almuaçaya ‘ganadero de ganado’. Antzeko burutzapena, *almazai/almazari*, erabiltzen da Sakana erdialdean eta Larraunen behorak estaltzeko, hots, hazitarako zaldia adierazteko.

Eztarria ‘garganta’. Horrela erabiltzen da Sakana osoan.

Yessi eguin ‘huir’. *Iyesi*, aferesia gauzatu gabeko burutzapena erabiltzen da Sakana guztian. Y grekoak h kontsonantearen aztarna erakusten du.

Gararilea ‘julio’. Oso anteko burutzapena erabiltzen da Sakanan, *garil*, nafarrera gehienetan bezala.

Iya ‘junco’. Altsasun ageri zaigu horrelako burutzapena. Sakana erdialdean *txunke* erabiltzen da.

Sagundillea ‘lagartija’. Iribarrenen arabera, *sagundil* erabiltzen zen Ziraukin, Lizarran, Solanan, Yerrin, Garesen eta Lorkan; *segundilla*, berriz, Añorben, Ameskoa behean eta Barasoainen. Sakanari dagokionez, *segundillelsugendille* Etxarri Aranatzen eta Unanun; *subandila* Urdiainen eta Altsasun; *subilinta* Bakaikun; *subengilla* Arbizun; eta *sumendille* Irañetan eta Hiriberrin.

Miazquetea ‘lamedura’. Urdiainen *miazkatu* erabiltzen da eta Etxarri Aranatzen *miliketu*.

Mia ‘lengua’. *Mi* erabiltzen da Sakana osoan, baina mugatzerakoan *y* kontsonante epentetikoa hartzen du: *miyela*. Burutzapen hau ohikoa da goinafarreran, aezkeran, zaraitzueran eta erronkarieran.

Jagui ‘levantarse’. Horrela erabiltzen dute Burundan eta asimilazio atzerakaria, *jegi*, gertatu zaielarik Uharte Arakilen eta Irañetan. Sakana erdialdean, bestalde, bokal arteko herskari belare ahostuna galdu egiten da, *jai*. Ezagunak dira *-gi* motako partizipioak mendebaleko zenbait hizkeratan.

Uletaco barçac ‘liendre de cabellos’. Lehen izenari dagokionez, *ila* eta *ille/a*, erabiltzen da Burundan, kontsonante albokoa palatalizatu gabe, eta gainerako Sakanako herrietan, palatalizaturik. Bigarren izena, aldiz, ia modu berean erabiltzen da Sakana osoan, baina *b/p* kontsonante txandaketa buruturik: *partza*.

Liquea ‘liga para tomar aves’. *Likela* erabiltzen da Etxarri Aranatzen eta Arruazun, eta *likia* Urdiainen ‘itsaskor’ esanahiarekin. Seguru asko ‘liga’tik dator.

Ondu, eldu ‘madurar’. Lehen burutzapena baino ez da erabiltzen Sakana osoan, hiztegian ageri den esanahiarekin.

Ditia ‘mama’. Hasierako kontsonante hortzetako ahostuna ahoskabe bihurturik, *titi*, erabiltzen da Sakana osoan.

Maucac jançic ‘mangado de mangas’. Horrela erabiltzen da ia Sakana osoan lehen burutzapena. Arbizun eta Doarraon *mokua* erabiltzen dute.

Oaçala ‘manta de cama’. ‘Ohe’ eta ‘azal’ osagaiak ditu hiztegi burutzapen honek. Etxarri Aranatzen *guazal* erabiltzen da ohe gaineko estalkia adierazteko. Gogoratu aipatu herrian *guatze* dela ‘ohe’aren ordaina, beraz ‘ohatze’ eta ‘azal’ izango genituzke kasu honetan osagaiak.

Yartu ‘marchitarse’. Burundan *iartu*, h-ren aztarnarik erakutsi gabe burutzen da, baina Sakana erdialdean *iyertu*, asimilazio aurrerakaria buruturik, ageri da esanahi berberarekin.

Achitamachia ‘mariposa’. Antzeko burutzapenak baliatzen dira Sakana osoan: Arbizun eta Lizarragabengon, *atxiyamatxiya*; Burundan *atxitamutxita*; Arruazun *atximitxiya*; Unanun *mutxutxuiya*; eta Etxarri Aranatzen *matxite*.

Bildurtia ‘medroso’. Horrela erabiltzen da Sakana osoan eta mendebaleko hizkeran eta nafarreraren mendebalde gehienez ere bai.

Illondoa ‘menguante de luna’. Burundan palatalizatu gabe eta Sakana erdialdean eta Arakilen palatalizaturik, horrela erabiltzen da Sakana osoan.

Ordeytu ‘mohoso’ eta aurrerago *burnian ordeiya* ‘orin de yerro’. Hitz berbera, baina metatesia buruturik, erabiltzen da Sakana osoan: *erdoi* Burunda eta bestelako herri gehienetan; eta hiztegiaren modura, *ordei*, Arbizun eta Lizarzagabengon. Dena den, beti burniari lotua erabiltzen da hitz hau Sakanan, eta hiztegiko leen burutzapenaren esanahia adierazteko *luzind(d)u* erabiltzen da.

Gau enarea ‘morçielago’. Antzeko burutzapenak ageri dira Sakanan: *gauinara* Urdiainen; *gaubeinare* Bakaikun; *gauñere* Arruazun; eta Unanun *gaubeko iñeria*. Bestelako burutzapenak gehiago aldentzen dira: Irañetan *gaxirriñe*; Etxarri Aranatzen *iñerexagu*; eta Uharte Arakilen *xaguzar*.

Escuturra ‘muñeca’. Horrela, burutzapen sinkopatuak, erabiltzen da Burundan, Etxarri Aranatzen, Ergoienetan, Lakuntzan eta Irañetan. Sakanako gainerako herrietan sinkopatu gabe, *eskumutur*. Mendebaldeko zenbait hizkeratan ere burutzapen sinkopatuak ageri da.

Pistian afia ‘nidale de aves’. ‘Habi’ a adierazteko *kafi* burutzapena erabiltzen da ia Sakana osoan. Altsasun, honekin batera, *txofraki* era bai, eta Olaztin azken burutzapen hauxe soilik. Beseak beste, *bftxandaketa* adieraziko liguke burutzapen honek.

Usay aditu ‘oler’. Horrela erabiltzen da Sakana osoan ere bai, *useyela aittu* edo bestelakoan, *useittu/usaitu*.

Çila ‘ombligo’. Horrela erabiltzen da Sakanan Uharte Arakileraino. Behin herri honetatik ekialdera, *txilbor* aipatu herrian eta *txirbol* Irañetan.

Uzcarra ‘pedo’. Burutzapen berbera erabiltzen da Burundan, eta asimilazio aurrerakaria buruturik, *uzker*, Sakana erdialdean eta Arakilen.

Nondi ‘por donde’ eta hurregoa *edo nondi* ‘por donde quiera’. Ablatibo kasuko morfemak ez darama bukaeran kontsonante herskari belare ahoskaberik eta horrelaxe gertatzen da Sakana osoan ere. Bestalde, Sakanan sudurkariaren aurreko erdiko bokalaren itxiera suertatzen da: *nundi*.

Larrea ‘prado de yerba’. Hauxe da ‘belardi’ a adierazteko Sakana osoan erabiltzen den burutzapena.

Lasterquea ‘presteza’ eta beste batzuk. Horrela, *lasterka*, eta ez beste modura erabiltzen da Sakana erdialdean ‘korrika’ren esanahia. Burundan, aldiz, *korrika(n)* burutzapena erabiltzen da.

Çayna ‘raiz’. Horrelaxe, kontsonante sudurkaria palatalizatu gabe eta diptongoa itxi gabe, erabiltzen da Burundan. Sakana erdialdean eta Arakilen, aldiz, palatalizaturik eta diptongoa itxirik, *zeñela*.

Yrastua ‘relampago’. Olaztin *inazturia*, Altsasun eta Urdiainen *oinaztura*, Sakana erdialdean *iñezturela*, eta Uharte Arakilen eta Irañetan *iñuzture*, hauexek dira Sakanako burutzapenak ‘tximista’ adierazteko.

Corronquea ‘ronquido’. Antzeko burutzapena erabiltzen da Sakana osoan, *zurrungela*. Dardarkaria ez beste kontsonanteak txandakaturik ageri zaizkigu eta baita lehen bokala ere.

Gurrzila ‘rueda de carreta’. Burutzapen berbera erabiltzen dute Bakaikun, baina gurdiaren gorpilen arteko ardatza adieraziz. Altsasun *burzil* erabiltzen dute. Etxarri Aranatzen, Dorraon eta Uharte Arakilen *zil*.

Apaça, meçarralea ‘saçerdote’. Sakana erdialdean eta Arakilen *apeza*, Bakaikun eta Urdiainen *apiza*, eta Altsasun *apaiza* erabiltzen da. Bestalde,

‘erran’ Euskal Herriko Ekialdeko burutzapena ageri da beste burutzapenean, *continuumaren* teoria azpimarratzeko.

JOAN PEREZ LAZARRAGAKOAREN ESKUIZKRIBUA (1567)

Ez da inongo zalantzarik Lazarragaren eskuizkribuaren euskara egungo zein euskalki multzotara lerratzen den esateko orduan. Mendebalera jotzen dute, zalantzarik gabe, bertan ageri diren hainbat eta hainbat ezaugarrik. Eta esaten ari naizena hobekien erakusten duena bertako pasarte bat da, 1143 orrialdearen atzealdekoa eta 1144koa, Silveriok abestu ondorengo hain zuzen:

Acabaduric bada Silveroc bere cantaetea, urten eben bere camararean eta igor eben bere ugaçabaren aposentura, çeña ydoro eben ysiric. Eta ytaunduric ese-coai nun çan, esan eusaen nola emazteagaz joan çidin jardin batera eta beregaz eroan eben Sirena eta Silvia bere donzellaac. Adituric bada Silveroc leen esan dogunau joan çidin musico baçuen esera eta erregutu eusten leguioela lagun musica bat emaitera joaten, çeinçuc esan eusaen baiez. Eta ala bear euen ynstrumentu guztiac arturic, joan çirean eta elduric Sirena eta Silvia eoçen lecuan, asi çirean Silverogaz zoaçen musicoac ain dulçemente jaiten euren ynstrumentuac, eçe Silveroen ugaçaba eta agaz eoçen guztiac çiteçen espantadu eta eçin pensadu euen nogaiti edo norrc emaita eben musica oa. Eta onetan eoçela ministrilac yxilduric asi çarean lau musico utra conçierty andiaz manera onetan cantaetan... (Joan Perez de Lazarraga, *Dianea & Koplak*, faksimile edizioa, f. 6v-f. 7, Erein, 2004).

Ugari dira, bistan denez, mendebaldeko euskalki multzora lerratzen duten ezaugarriak testu honetan. Ezaugarri fonetiko-fonologikoak alde batera utzirik (transkribatutako zati baten aurrean gaude), morfología eta lexikoaren ingurukoak nahiko ditugu aurrerago genioena baieztatzeko. Deklinabideari dagokionez hortxe dira ablatibo eta soziatibo kasuetako burutzapenak: *kamararean, emazteagaz, beregaz, Silverioagaz, agaz*. Aditzari erreparatuz, berriaz, hor ditugu *eben, eusaen, dogun, eusten, euen, çirean, eoçen, zoaçen* eta *eoçela* aditz formak eta *acabadu, pensadu* eta *espantadu* partizipioak. Eta lexikoaren inguruan ere asko dira pasarte labur honetan ageri diren mendebaldeko burutzapenak: *urten, igor, ugaçaba, ydoro, ysiric, ytaunduric, eroan* eta *euren*.

Ezaugarri ugari, bada, mendebaldeko hizkera multzokoak hamar lerrotan aurkitu ahal izateko, baina hala ere, bada lerro gutxi hauetan erdialde eta ekialdeko hizkeretara begiratzen duen besteren bat baino gehiago, hala nola erlatibozko esaldietako *zein* eta *eze(n)* partikulen erabilera⁴: ... *çeña ydoro eben ysiric; ... çeinçuc esan eusaen baiez; ... eçe Silveroen ugaçaba eta agaz eoçen guztiac...* Bestalde, testuaren bukaeran ageri den aditzlaguna, *manera onetan*, horrela erabili izan da XVII. mendean, Nafarroan, Altsasuko apaiza eta alkaterearen arteko auziko 228. orrialdean⁵: ... *bellaco oquerr onec engaña deçala*

⁴ Horrela jaso du Xavier Kintanak FLV 97an, “Joan Perez Lazarragakoren izkribuaren inguruan” artikuluan, 584 orrialdean: “Erlatibozko esaldietan *zein* eta *non* eskuarki darabiltza, ekialdeko autore-tan bezala, bai eta *eze* partikula ere, ondoren *-la*-rekin datorren menpeko esaldiaren aitzindari...”.

⁵ Jose Luis Erdozia, *FLV*, 99, 10, 2005.

erriau ni eta guztioc manera ontan, eta uzi dadila eguiteco procesioa... Ez du, beraz, ‘modu’ edo ‘era’ burutzapenak erabili, ‘manera’ baizik.

Orain arte ikusi dugun bezala, orduan, esan daiteke ziurtasun handiz Lazarragaren eskuizkribuko euskara, egungo euskalkien multzoetan nonbait kokatzekotan, mendebaldekoan behar duela izan. Iritzi honen alde egiten du, era berean, Lazarragaren familiaren jatorria oñatiarra zela jakiteak eta ehun urte edo izan zirela lehen Lazarragatarra Lautadako Barrundiara iritsi zenetik Joan Perezek eskuizkribua idatzi zuen arte. Era berean, ez dugu ahaztu behar, Arabako Lautadako euskara, nafarrera eta mendebalaren artean aurkitzen zela eta baita Deba garaia (San Adriango pasabidea) eta Goierritik (Altsasutik barna) oso hurbil. Pentsatzekoa da, beraz, eskuizkribuak hizkuntza hurbiltasun hau jasoko duela eta, neurri batean behintzat, ekialdeko eta mendebaldeko hizkeren arteko zubi lanen lekuko izango dela. Horrela esan du Xabier Kintanak⁶: *Nolabait, Lazarragaren euskara, mendebalde eta ekialde arteko euskalkien iraganbidean aurkitzen zen, batzuen eta besteen arteko zubi gisa. Alde horretatik Sakanako haran luzeak Arabako, Bizkaialdeko, Deba garaiko, Gipuzkoaldeko (Altsasuren irtenbidetik) eta Nafarroa Garaiko dialektoen arteko harremanetarako bide geografiko naturala izan da beti, eta alde horretatik Lazarraga XVI. mendean eragin ezberdin horien ondorioz bertako euskara nolakoa zen erakusteko lekuko aparta dugu, eta arreta handiz aztertzekoa.*

Asmo honekin, eta jakinik mendebaldeko hizkuntza ezaugarrien nagusitasuna ia erabatekoa dela, baina lehentxoago aipatzen nituen zubi lanen lekuko moduan besterik ez bada ere, Sakanan aldean bizirik, edo gutxienez ezagun diren eskuizkribuko hainbat burutzapen aztertuko ditut.

Lehenik, Landuchioren hiztegia aztertzerakoan aipatzen nuen *-a + -a > -ea (> -ia > -ii)* disimilazioa, Burundan ohikoa, aipatuko dut: *... ene perlea...* (1179), *Monjea causa dala...* (1180), *... dicharic ez neben au alabea, dirurren saldu ninçan esclabea* (1181). Eta askoz gehiago ere badira horrelako burutzapenak.

Bokalen inguruan jarraituz, Sakanan ohikoa den *o > u /_n* bilakabidea ageri da eskuizkribuan ere: *nun* (1185), *nungo* (1182).

Harritzekoa bada ere, Sakanan bertan ere Uharte Arakildik ekialdera hasten dira horrelako burutzapenak agertzen, errotazismoaren aztarna ageri zaigu eskuizkribuko 1185 orrialdean, *berrçerea*.

Deklinabideko ablatibo kasua, modu sistematikoan, bukaeran kontsonante herskari belare ahoskaberik gabe burutzen da eskuizkribuan, jarraian adibide batzuk baino eskeiniko ez baditut ere: *Aren aoti berba oa ... neure besoti oratu ... beguietati lasterr eguion* (1179), *Basoetati ebili naiz ez erri çelaie-tati ... eztacust beguietati* (1200).

Nor-nori-nork erako aditz forma bat, gutxienez, erabiltzen du -I- erroa daramala, egun Sakanan Arbizutik ekialdera gertatzen den gisan: *Oin escu kardenok apaçen djot...* (1180). Eta gehiago ere badira, Xabier Kintanak dioenez (2004): “Gaurko euskalkien egoera eta finkapena kontuan harturik, harritzekoa da, neurri baten bederen, autore berberak *naiz, naz* zein *nax, deutsut* zein *dizut* tankerako adizkerak txandaka erabiltzea...”.

⁶ *FLV*, 97, 585-586, 2005.

Lazarragak, bestalde, *-etan* morfema baliatu zuen behin baino gehiagotan aspektu burutugabea gauzatzeko: ... *eta utra boz amorosoaz asi çan manera onetan cantaetan* (1140), ... *arpa bat eta asi çan bere mina Sil / ... declaraetan manera onetan* (1141), ... *jaiten asi çan manera onetan cantaetan ebela* (1142), ... *arturic biguela bat asi çan cantaetan manera onetan* (1143), ... *utra concier-tu andiaz manera onetan cantaetan* (1144), ... *jarri çan non bere ganadua goardaetan eben* (1146). Eta ia modu berean, disimilaturik honek, erabili zuen Kandido Izagirrek Altsasuko euskara aztertzerakoan (1967, 90): “*An fraile txikiyak asi zian kantaitan kantu poolibatzuk...*”. “*Geo asi zian aundiyoğuk indar aundiyoğukin kantaitan bi aldetaa ta boza...*”. Eta Sakanako Ahozko Tradizioa laneko (SAT) Urdiaingo transkribaketako batean ere, Luisita Goikoe-txea Lizarragari egindako grabaketan hain zuzen, ondorengoak ageri zaizki-gu: *Baño, jatordue etor zan da, besten ue bazkaitan jarri zan garayen, pues, ua re bai, bazkaitan, mayen, ta esan zon aitak...* (102); *Ori aurra(k) gindala joa-ten gindan elurra... iten zen garaian, kantaita...* (107).

Partizipioaren kasuan, behin behintzat, Burundan suertatzen den mo-
duan, *-gi-z* osatutakoa ageri zaigu 1181 orrialdean, *jagui*.

Kausazko esaldiak burutzeko *çegaiti* galdetzailea menderagailu moduan erabiltzen du Lazarragak 1180 orrialdean, Sakanan egun erabiltzen den mo-
duan: *çegaiti orain çu ta ni gara bioc igual gueratu*. Gauza bera egiten du au-
rrerago: *Çegaiti çu çara dubdadu бага...* (1180).

Lexikoari dagokionez, Euskal Herriko sortaldean ohikoa den burutzape-
na, *pulcatu*, ageri da eskuizkribuko 1180 orrialdean. Sakana osoan erabiltzen
da horrelako burutzapena, baina hasierako kontsonante ezpainetakoa aho-
stuna delarik, *bulkatu/bulketu*. Eta honetaz gain, *uzcar* (1179-1180), *mii*
(1174), *igual* (1180) burutzapenak ere oso ohikoak dira Sakanan.

MARTIN PORTALEN ERROMANTZEA (1610)

Laurogei lerro baino ez ditu Portalen poesiak, silaba gutxikoak guztiak
gainera (hamarren bat gehienak), eta hala ere badira Sakanako hizkerekin an-
tzekotasunak, ez asko, hori bai, eta baita erdialdekoarekin ere.

Bi alditan burutu du Burundan ohikoa den *-a + -a > -ea (-ia)* disimila-
zioa: *Probeen aytea da...* (29), ... *pobreçea penarequin...* (75).

Deklinabideko instrumental kasuko morfema, Sakanan bezala (*-s*) erabil-
tzen du: *Onen deyes egondu çan* (37), *guças cõtu gueyago eguin deu* (47), *Arro-
sas jansirica* (61). Sozietibo kasuan ere, Sakanako morfema berbera, baina bu-
kaeran kontsonante sudurkaria daramalarik, erabiltzen du bi alditan:
erregaro ascorequin (19), *pobreçea penarequin* (75).

Aditzari dagokionez, erdialdeko hizkera multzoan ohikoak diren formak
ageri zaizkigu Portalen poesian: *artu deçu* (7), *honrratu deçu* (9). Era berean,
Sakanan ezagunak diren partizipio analogikoetariko bat ere irakur daiteke:
egondu çan (37). Eta, azkenik, *-gi* motako beste partizipio bat ere bai: *yregui
digus* (55). Etxarri Aranatzek *irai* erabiltzen da, ondorengo bilakabidea izan
duelarik burutzapen honek: *iregi > irei* (bokal arteko kontsonante herskaria-
ren galera) > *irai* (diptongo bigarrenkariaren irekiera). Sakanako gainerako
herri gehienetan *irei* erabiltzen da.

Bestalde, deklinabideko partitibo kasuari erreparatuz, erdialdeko hizkera
multzoan oso ohikoak diren *-(r)ica(n)* morfemadun burutzapenak ugari dira

poesian: *guiçonica* (51), *Alegrerica* (57), *jarririca* (59), *jansirica* (61), *pobreçarica yrtenica* (67) eta *arturica* (71).

JOAN BAUTISTA GAMIZEN OLERKIAK (XVIII. MENDEA)

Ugari dira olerki hauetan mendebaldeko euskalki multzotik aldendu eta erdialdeko eta ekialdeko euskalki multzoetara jotzen duten ezaugarriak, eta hori horrela izanik, Sakanako hizkerekin bat egiten du Gamizek hainbat burutzapenen kasuan. Honako hauetan esate baterako:

Kontsonantei dagokien neurrian, herskarien artean txandakaketak ohi-koak izaten dira euskal dialektologian eta horrelako burutzapen bat ageri zaigu olerkietan *Dabilcenchoac* izenburua daramanean, hamabigarren lerroan eta aurrerago ere bai, *eguizu farre* eta *farre eguiten baduzu*, eta horrela, *f*-dun burutzapena, erabiltzen da Sakana erdialde ia osoan, Lakuntzan, Uhartarakilen eta Irañetan (*irri* hiru hauetan) izan ezik. Burundan hasieran kontsonante ezpainetako ahostuna, *barre*, daramalarik erabiltzen da. Eta, harritzekoa bada ere, ekialdeko euskalki multzoan ohikoa den errotazismoaren az-tarna ikus dezakegu: *verce* dator *Oñecochoa* izenburuko atalaren hasieran. Gogoratu Sakanan Uhartarakildik ekialdera hasten direla lehen errotazismo aztarnak agertzen.

Bokalismoari erreparatuz gero, hasierako *e*- bokalaren itxiera erakusten duten *Yguzquia* eta *yguzquiac* ageri dira olerkietan. Sakanan ere itxiera suertatzen da, *iruzki* entzun daiteke ia herri guztietan eta *yuzki* Urdiainen. Bestalde, berriz ere Sakanan ohikoa den moduan, zenbait aditz partizipioen -i bokalaren sinkopa suertatzen da olerkietan ere: *ycuzco deugu*, *icuzcodut* eta *ibilco gara*.

Deklinabidearen kasuan ere badira zenbait burutzapen azpimarragarri. Horien artean, sozietibo kasuko *-ki(n)* morfemaren erabilera: *orrequin*, *onequin*, *iltzeaquin*, *tonuarequin*, *zurequi*, *valarequi* eta *osasunaquin*, eta bitan baino ez da ageri, aldiz, *-gaz* morfemaduna, *bategaz* eta *alcarregaz*. Era berean, instrumentalaren kasuan ekialdeko formak, *-s* morfemadunak, ageri zaizkigu. Hortxe ditugu, esate baterako, *urresco*, *penas*, *gustos*, *verris*, *esperanzas* eta *afectuoso*, baina baita *-z* daramatenak ere, *euzqueraz*, *bildurraz*, *libertadeaz*, *guztiz*, *negarrez*, *nequeaz*, *gavez*, *egunez*, *urdaiaz* eta *zabaltzunaz*. Burutzapen errepikatua da baina, hala ere aipagarria iruditzen zait, destinatiboko *-rendako* morfemaren erabilera, berriz ere ekialdeko euskalki multzora garamatzalarik: *arendaco*.

Moduzko aditzondoak burutzeko *-to* eta *-ki* atzizki eratorleak baliatzen ditugu, lehena mendebaldeko euskalki multzoan ohikoa suertatzen delarik eta bigarrena, aldiz, besteetan. Bada, kasu honetan, zenbaitetan bigarrena erabiltzen badu ere (*gaizqui* bi aldiz, *obequi*, *ongui* eta *gaisqui*, baina *ondo* hiru aldiz eta *gaizto* ere bai), ezin esan Sakanako moldera makurtzen denik, bi erak erabiltzen baitira haran honetan, lehena Burundan, eta bigarrena Sakana erdialdean eta Arakilen.

Aditz formetan ere, ekialdeko moldea (erdialdekoa ere bai zenbaitetan) jarraitzen duela esan daiteke, ondorengo aditz formek erakusten duten moduan: *eztuzu*, *eztut*, *deugu*, *beardegu*, *naiz*, *badut*, *dirade*, *duzu*, *du*, *zerala*, *zera*, *dut*, *nauzute*, *daude*, *ilnau*, *ezandio*, *dio*, *dugu*, *dudanac*, *beardegu*, *bazau-*

de, naidituzun... baina, gutxi badira ere, *duztazu, dust, deust* eta *espadagos* aditz formek mendebaldera begiratzen dute.

Azkenik, lexikoaren arloan ere badira Sakanan asko erabiltzen diren burutzapenez gain ekialdekotzat har ditzakegunak ere: lehenago aipatutako *farrre, iguzqui* eta *verce* eta hauetaz gain, *carrica, vildurric, fite, anitz* eta *asqui*.

JULIAN GARCIA DE ALBENIZEN ESKUIZKRIBUA (1778)

Argi eta garbi ikus daiteke mendebaldearen, erdialdearen eta ekialdearen arteko zubi hizkera dela araiarrak eskuizkribu honetan baliatzen duena, hiru hizkera esparruetako ezaugarriak ageri baitzaizkigu eten gabe. Kasurik nabarmenena, Nor-Nork erako aditz formena dugu, bertan *-o-*, *-e-* eta *-u-* erroa daramaten burutzapenak ditugularik: *dut, dezun, duzu, badut, dozula, dot, dotzula, dodan...* Nor erakoei dagokienez ere, bada horrelako alternantzia: *zarran, cerala, zeralako, zera...* Nor-Nori-Nork eran, ekialdera lerratzen dela ematen du, *-i-* erroa erabiltzen duelarik gehien: *dizun, diot, badiozu, diozun, diozula, diotzut...* baina *deiztala, deuztala...* Eta aditzarekin bukatzeko, nafarreran eta ekialdeko hizkeretan gertatzen den moduan, ez darabil etorri aditzaren era sintetikoa, horren ordeztatu 'heldu' aditza baliatzen duelarik: *Ea Jesus neurea, eldu naiz zugana neure becatuak erreconociduric*. Eta aurrerago, ... *zugana eldu naiz...*

Aipatu zubi hizkeraren izaera, bestelako ezaugarrietan ere modu nabarmenean antzeman daiteke. Horrela, *nigati, guztiti, zeregati, ezeti, vildurragaiti...* baina *gustitic, nigatic, cergatic, onegaitic, gorputcetic...* bukaeran kontsonante herskari belare ahoskabea daramaten eta ez daramaten burutzapenak daude.

Bestalde, deklinabidean, sozietibo kasuan bi morfema mota ageri dira: *batequin, pecatuaquin...* eta baita *izanagaz, ceñegaz, onegaz...* Destinatiboan, burutzapen bakarra ageri da eta horixe ekialdeko hizkera multzoan ohikoa den morfemaz osatua: *neretaco*. Aipatzekoa da, era berean, edute genitiboaren kasuan behin buruturiko bilakabidea, Sakana guztian egiten den modukoa, *-aren > -aen* (bokal arteko dardarkariaren galera) *> aan* ($V_1V_2 > V_1V_1$) *> an* ($V_1V_1 > V_1$): ... *neure Jaunan aurrean...* Lehenago era formalean erabili du: ... *neure Jaunaren escuetan...*

Azkenik, lexikoaren atalean, ezer gutxi dago aipatzeko, baina bai burutzapen bat gutxienez, *Aguiquetan dut*, Etxarri Aranatzan *agittu* forman erabiltzen dena eta hauteman, somatu edo nabaritu esan nahi duena, eta horixe bera adierazi nahi duela eskuizkribuan iruditzen zait.

GERARDO LOPEZ DE GEREÑUK JASOTAKO HITZ MULTZOA

Artikuluaren hasieran esan dudan moduan, ataltxo honen jatorria Koldo Zuazoren *Arabarrak Euskararen Herrian* liburuan dugu, bertatik hartu baitut aztertu eta Sakanako lexikoarekin erkatzeko burutzapen hauek. Hala ere, ez ditut hitz guztiak kontuan izan, Arabako ekialdeko eremuan erabiltzen direnak baizik, eta horietatik ere, aipagarrienak iruditu zaizkidanak baino ez, Euskal Herri osoan dagoeneko nahiko zabalduak direnak baztertu ditudalarik. Hautatutakoak, orduan, Zuazoren zerrendan ageri diren moduan jaso,

gatzelaniako ordaina eta erabiltzen den herria edo eremua barne delarik, eta jarraian Sakanako burutzapenarekiko erakusten dituzten kidetasunak azalduko ditut.

Abi 'Arándano' (Kontrasta). Horrela ageri da Sakana osoan *Vaccinium myrtillus* zuhaixka adieraziz.

Achunes 'Ortigas' (orok.). Modu berean, *achun*, jaso zuen Iribarrenek Nafarroako mendialdean eta erdialdean. Sakana erdialdean *axuiñ* eta Burundan *asun* erabiltzen da.

Achur 'Rastrillo empleado en la labores agrícolas' (Araia). Burundan *aitzur*, Sakana erdialdean *aitzur*, Uharte Arakilen eta Irañetan *eltzur* eta Urrietzolan *ailtzur* erabiltzen da, baina ez Araiaiko esanahiarekin, 'azada' adieraziz baizik.

Acizari 'Cesta pequeña en la que se lleva la simiente' (Araia). 'Hazi' eta 'zare' dira bere osagaiak eta horrelaxe erabiltzen da Sakanan, *azizare*. Bigarren osagaiari dagokionez, Iribarrenen arabera horrela erabiltzen zen Nafarroan Iruñan, Iruñerrian, Mendialdean eta Erronkarin saskia edo otarra adierazteko.

Acullu 'Palo de madera con punta de hierro como aguijón' (Zuia). Horrela jaso zuen Iribarrenek Zaraitzun eta Aezkoan. Burundan *akulu* eta Sakana erdialdean *akillu* erabiltzen da eta gehienbat urritzekoa izaten da.

Aldamen 'Adral o tablero en el carro de labranza' (Araia). Sakanan ia modu berean, *aldemen*, esaten zaio gurdiaren gorputzeko bi aldeetako egur luzei.

Anchogorri 'Ave de garganta roja' (Agurain). Iribarrenek antzeko burutzapena jaso zuen Beran, *anchogorri*. Sakanan burutzapen ezberdinak baliatzen dira: *txontxolongorri* Etxarri Aranatzen, *ttattalangorri* Bakaikun, *papargorri* Urdiainen eta *lepargorri* Irañetan.

Aran 'Fruto del endrino' (orok.). Horrela esaten zaio Etxarri Aranatzen arantzaren fruituari, *maldaan* Arbizun eta *an* Urdiainen.

Arbi 'Nabo pequeño' (Araia). Modu berean erabiltzen da Sakana erdialde osoan.

Arnasca 'Bebedero de piedra' (Entzia mendia, Agurain). Nafarrera gehienean *aska*, besterik gabe, erabiltzen da.

(*A*)*urzai* 'Niñera' (Araia, Kontrasta). Urdiainen *aurtzai* eta Sakana erdialdean *aurtzei* entzun daitezke. Uharte Arakilen *umezei*.

Beguiluz 'Fisgón' (Araia). Horrela erabiltzen da Sakanan, baina esanahia zertxobait aldatua, ahal baino gehiago hartzen edo eskatzen duenari egokitzten zaiolarik.

Belurdin 'Seta comestible, de color sonrosado en su cabeza, que aparece al final del verano' (Kontrasta). *Russula virescens* eta *Russula cyanoxanta* zizak izendatzeko antzeko burutzapena, *gibelurdin*, erabiltzen da Sakana osoan. Kontrastakoari hasierako silabaren aferesia suertatu zaio.

Betagarri 'Troncos con los que se rellena la carbonera' (Kontrasta). Modu berean jaso zuen Iribarrenek Artazan eta Ameskoan. Sakanan *betegarri* esanten zaio txondorrera botatzen den egur xehetuari, barruko suak pizturik iraun dezan.

Bichilora 'Maya o bellorita, *Bellis perennis*' (Kontrasta). Antzeko burutzapenak ditugu Etxarri Aranatzen, *pitxigorri*, eta Urdiainen eta Bakaikun, *pitxili(n)ta*, bi lore mota adieraziz.

Biriqui ‘Chorizo confeccionado con las menudencias del cerdo’ (Kontrasta). Izagirrek Altsasun modu berean jaso zuen ‘el sabadeño (chorizo más ordinario)’ adierazteko. Sakana erdialdean *birikela* esaten zaio txistorra baino lodiagoa den hestekiari.

Biur ‘Tronco de árbol cuyas vetas se presentan torcidas’ (Kontrasta). Sakana osoan erabiltzen izenondo hau oker edo makur adierazteko. Hala ere, toponimian ere ageri da Etxarri Aranatzan, zerrenda honetako zentzuarekin: *arizbiyurrite*.

Biura ‘Muérdago’ (Kontrasta). Etxarri Aranatzan eta Lizarragabengon *migure* erabiltzen da eta Lakuntzan *muire*.

Burrinada ‘Arado de cinco o siete púas’ (Narbaxa). Sakana osoan lehen osagaia *burni* da eta bigarrena berriz *are*.

Burrucas ‘Llegar a las manos riñendo’ (Araia). Horrela, bi bokalak itxirik, erabiltzen da Sakana osoan.

Buruzaye ‘Guarda o pastor’ (Andoni, Egin). ‘Buruzagi’ izango genuke burutzapen estandarizatua. Sakana erdialdean *buzei* eta *buzai* erabiltzen da, Etxarri Aranatzan Udalak herritarrei ardoa eskaintzen dienean banatzen duenari horrela esaten zaiolarik eta Arruazun, aldiz, agoazila adierazteko erabiltzen da.

Cascarreco ‘Golpe dado en la cabeza con los nudillos’ (Araia). Horrela eta *kasketako* erabiltzen da Sakanan buruan jasotako kolpea adierazteko.

Catilu ‘Escudilla’ (Galarreta). Kikarari esaten zaio horrela Sakanan, Burundan kontsonante albokoa palatalizatu gabe eta Sakana erdialdean eta Arakilen palatalizaturik.

Chali ‘Plato de madera que usan los carboneros’ (Araia). Etxarri Aranatzan eta Lakuntzan *zali* da egurrezko goilara handia eta sakona, janaria plateretan banatzeko erabiltzen dena. Altsasun Izagirrek *buluntzarriya* esaten dio zartagin txikiari, ‘cazo’ modukoari.

Charrizai ‘Pastor de cerdos’ (Araia). Urdiainen *txerrizai*, Bakaikun *txer-txai* eta Sakana erdialdean *txertxei* burutzapenak erabiltzen dira.

Chindurri ‘Hormiga’ (Araia). Horrelaxe, *txindurri*, erabiltzen da Burundan. Sakana erdialdean *txingurri* eta Arakilen, berriz, *txiñurri*.

Coroche ‘excremento de cabras y ovejas’ (Kontrasta), ‘excremento de caballo’ (Araia). Sakana osoan *ongarri* erabiltzen da, baina hemengo burutzapena bere osagaien artean jasotzen duena bildu dugu Urdiainen, *kozpiltza*, ongarritegia adieraziz. Bere osagaiak, hortara, *korotz* + *pila* + *-tza* atzizkia dira.

Coscol ‘Cáscara o zurrón de que están recubiertos los granos de yero y lenteja’ (Kontrasta). Lakuntzan *koxkol* eta Sakanan, bestela, *kaskal* erabiltzen dira.

Cuncún ‘Sapo’ (Kontrasta). Horrela erabiltzen da Burundan eta Sakana erdialdean. Uharte Arakilen *kinkon* eta Arakilen *zarrapo*.

Escuara ‘Rastrillo de ocho dientes para recoger carbón, hierba, etc.’ (Kontrasta). Horrela jaso zuen Iribarrenek Ameskoan. Burundan *eskubere/a* eta Sakana erdialdean *eskuere*. Arakilen, berriz, *zarre* erabiltzen dute.

Estagorri ‘Esófago’ (Kontrasta). *Estagorri* erabiltzen da Sakana osoan.

Gaillur ‘Madera que hace la división de aguas en el tejado’ (Kontrasta). Urdiainen modu berean, baina palatalizatu gabe, Altsasun Izagirrek *gaildur* jaso zuen eta Bakaikun *geldur* erabiltzen dute. Sakana erdialdean hasierako herskari belarea ahoskabe, *kaldor*, ageri da.

Gazura ‘Agua espumosa que sale en el término de Pocilones’ (Zekuiano). Iribarrenen arabera Iruñerrian eta bestalde Sakana osoan ere horrela esaten zaio gazta egiterakoan gaztanberaz bereizten den likidoari.

Ias ‘Hierba correosa parecida al junco’ (Kontrasta). Antzeko burutzape-na, *iya*, jaso zuen Izagirrek Altsasun ihia landarea adierazteko. Sakanako gaine-rako herrietan *txunkela* erabiltzen da.

Ipar ‘Una clase de viento’ (Araia). Horrela eta bokal irekia asimilaturik, bi modutara, erabiltzen da Sakanan, ipar haizea adierazteko.

Iturreco (Barrundia), *iturreco* (Araia) ‘Boyero que va delante de los bueyes’. Barrundian bezala Urdiainen, *iturriko* Altsasun eta hortzetako kontso-natea palatalizaturik, *itturriko*, Etxarri Aranatzen erabiltzen dute Sakanan.

Joiqui ‘Instrumento para majar pienso al ganado’ (Araia). Arbiak, erre-molatzak eta antzeko jakiak ganaduarentzat mozteko laban handiari *otajaki* esaten zaio Sakanan.

Labroch ‘Arado de cuatro dientes’ (Narbaxa). Etxarri Aranatzen eta Liza-rragabengon *lauortzeko* esaten zaio lau hortz dituen nekazaritzako tresnari.

Lancarría ‘Lluvia fina y espesa’ (Kontrasta). Modu berean jaso zuen Iri-barrenek Ameskoan eta *langarria*, kontsonante herskaria ahostun daramala-rik, Lizarraldean. Sakanako herri gehienetan *langarra* eta Irañetan eta Hiri-berrin *lankarra*.

Langa ‘Barrera rudimentaria para el cierre de setos’ (Kontrasta). Horrela-xe erabiltzen da Sakana osoan eta Iribarren arabera baita Ultzaman, Odie-tan, Atetzen, Esteribarren eta Leitzan.

Lantegui ‘Lote de arbolado que se ha subastado para su explotación’ (Kontrasta). Modu berean Burundan eta Iribarrenen arabera Añorben, Liza-rraldean eta Ameskoan. Sakana erdialdean bokal arteko herskari ahostuna galdu duelarik, *lantei*.

Leguén ‘Eczema’ (Kontrasta). Lizarragabengon *leen* esaten zaio larruaza-leko gaisotasunari, legenari.

Lera ‘Especie de vehículo sin ruedas que se usa para transportar carbón o leña en lugares escabrosos de grandes pendientes’ (Kontrasta, Adana). Etxa-rrri Aranatzen, Lizarragabengon, Arbizun eta Urdiainen burutzapen hau era-biltzen dute basoan egurra eramateko gurpilik gabeko gurdiaren moduko tresna adierazteko.

Macalo ‘Persona delicada de salud’ (Araia). Sakana osoan erabiltzen da izendo hau, norbait edo zerbait ahul dagoela adierazteko.

Mami ‘Meollo de un fruto’ (Araia). Horrela erabiltzen da Sakana osoan, ogiarena zein fruituena adierazteko.

Maratilla ‘Taravilla para cerrar las puertas’ (Agurain). Bokal berdinen ar-teko kontsonante dardarkaria galdurik, *maatillea*, erabiltzen da Sakana er-dialdean.

Marrubi (Kontrasta), *alubica* (Apillaniz) ‘Fresa silvestre’. Sakana erdial-dean Kontrastan bezala erabiltzen da eta Burundan, aldiz, *aulubi*, Apillani-zeko burutzapenaren antzekoa.

Micharro ‘Lirón’ (Mendialdea). Iribarrenek modu berean jaso zuen Bei-ren eta *Micharzulo* Ameskoan. Nafarreran, orokorrean, *muxer* edo asimilatu gabe, *muxar*, erabiltzen da.

Moscorra ‘Embriaguez, borrachera’ (Kontrasta). Modu berean ageri da Sakanan.

Ococh ‘Barbilla, mentón’ (Kontrasta). Horrela, *okotz*, erabiltzen da Burundan eta Sakana erdialdean. Arakilen, aldiz, *kokotz*.

Opache ‘eructo’ (Opakua). Arbizun *apats*, Arruazun *upets* eta Sakana erdialdean, orokorrean, *epats* entzun daitezke. Urdiainen, aldiz, *gaup*.

Olbea ‘Arcos o cubierto en paseo público’ (Agurain). Etxarri Aranatzen *estalozea* burutzapena erabiltzen da gauza bera adierazteko eta osagaiak, bi gutxienez, berdinak dira: *estal(i)* + *ohol* + *behea*.

Cuquila (Kontrasta), *oquil* (Ozeta) ‘Ave, picaverde’. Irañetan ia burutzapen berbera erabiltzen dute, *kukille*. Urdiainen *okil*, Etxarri Aranatzen *kokil* eta Lakuntzan *kikil* entzun daitezke.

Oroldi ‘Musgo’ (Araia, Opakua). Burutzapen berbera jaso zuen Iribarrenek Odieta ibarran eta Atrasan. Bestalde, Sakana erdialdean bokal berdinen arteko dardarkaria galdurik, *o(o)ldiyo*, erabiltzen da.

Palaburrina (Agurain), *taloburruña* (Araia) ‘Parrilla para hacer talos’. Iribarrenek *talaburri* jaso zuen Nafarroako Mendialdean eta Sakanan *talaburni* erabiltzen da.

Segundilla (Araia), *segundila* (Kontrasta) ‘Lagartija’. *Segundilla* eta *sugendilla* erabiltzen dira Etxarri Aranatzen eta Unanun eta baita Añorben, Amekoan eta Barañainen Iribarrenen arabera. Burundan, aldiz, *subandila*.

Salgue ‘Cereal, cebada, avena, que se siega en verde para pienso del ganado’ (Arabako Lautada). Sakanan *zalke* esaten zaio labore honi eta Iribarrenek ere horrela jaso zuen Garesen.

Zampaburu (Araia), *zapalburu* (Zalduondo), *zampaburro* (Andoni, Araia) ‘Renacuajo’. Etxarri Aranatzen *zapabu(r)u* eta Arbizun eta Lakuntzan *zapandurra* burutzapenak entzun daitezke.

Sarda ‘Instrumento de madera de cuatro o más púas que sirve para volver o tender la parva en la era’ (Kontrasta, Araia). Ia Sakana osoan *sarde* eta Urdiainen *sardai* erabiltzen dira.

Tripoqui ‘Estómago del cerdo’ (Barrundia). Sakana erdialdean bereizi egiten dira ardi odolez edo txerri odolez egindako odolkiak: *tripeki* esaten zaie ardi odolez egindakoei (meheagoak ere badira hauek) eta *tripota*, berriz, txerri odolez egindakoei.

Varga ‘Derrumbadero, cortadura a pico en el terreno’ (Entzia mendia). *Barga* toponimoa Sakana osoan da ezaguna eta haxe Andia eta Urbasa mendien gainetik haraneraino dagoen basoari esateko erabiltzen da.

Zakuto ‘Bolso pequeño’ (Apiñaniz). Zaku txikia adierazteko erabiltzen da Etxarri Aranatzen, Lakuntzan eta Urdiainen gutxienez.

ARABAKO EKIALDEKO LAUTADA ETA SAKANAKO TOPONIMIA

Atal honetan Arabako Lautadako ekialdeko herrietako (Aguraindik Nafarroako mugaraino) toponimia eta Sakanakoa (Burundakoa bereziki) alderatu ditugu, gutxi gorabehera hogeiren bat toponimo izan ditugularik kontuan. Toponimo horiek gehienak, edo berberak dira edo, bestela, oso antzekoak, hurbiltasun geografikoak edota hizkuntzakoak horrela bideraturik, seguru asko.

Barga toponimoa Sakana osoan erabiltzen da lehentxeago, Lopez de Gereñuren hitz zerrenda aztertzerakoan, esaten genuen moduan eta hala ageri da Eginon ere, *La Barga*, eta *Bargaristo* Andoinen.

Madura toponimoa, modu honetan buruturik ageri zaigu Agurainen eta Burundako Altsasun eta Bakaikun ere bai. Horrela diote Tracasakoek (IX, 49) Altsasuko toponimia aztertzerakoan: «En la toponimia vasca y muy especialmente en la occidental (Vizcaya y Álava), *Padura*, *Madura* es nombre de terrenos pantanosos y encharcados. Es un genérico vasco de origen latino (lat. *Paludem*, ‘pantano’) hoy en desuso. En toponimia romance también existe (*Paül*, *el Paular*, italiano *Padua*)».

Bestalde, Eginok eta Andoingo toponimian *Idaduyeta* eta *Iraduyeta* ageri zaizkigu, hau da, ‘Ira + -dui + eta’ osagaiak ditu toponimo honek, d/r txandaketa edo alternantzia burutu duelarik herri batetik bestera. Burunda osoan da ezaguna ‘ira’ burutzapena, Sakana erdialdean ‘ixtor’ (< iraztor) erabiltzen den bitartean.

Eginoko eta Ziordiko mugan, erdialdean, agertzen da *Arbara* toponimoa, Ziordin *Arbarazulo* ere ageri delarik. Eta bi herrien iparraldean, Gipuzkuko mugaren aldean, aldiz, *Lezaun* toponimoa dago.

Bestalde, eta bi herrien arteko mugan, *Barga* aldean oraingoan, hegoaldean beraz, ageri da *Karabide* toponimoa.

Berriz ere bi herri hauetan, ondorengo toponimoak daude, *Sorabil* Eginon eta *Abilasoro* Ziordin. Ez daude elkarren ondoan, Ziordikoa barnealdean dagoelako eta, begi bistakoa da osagai berberak dituztela biek. Eta hauekin batera, *Ibarrieta* Eginon eta *Ibartiko ibai* Ziordin ageri dira.

Andoinen, *Isasei* toponimoa dago eta Altsasun eta Olaztin, aldiz, *Isasia*.

Eginon *Zulanpo* ageri zaigu, Lizarragabengon, aldiz, *Zulanpe* erabiltzen da eta Ziordin *Zulan*. Eginok eta Ziordik muga egiten dute, baina toponimo hauek ez daude bi herrien arteko mugan bertan, bakoitza bere aldetik baizik. Bistan da Eginoko eta Lizarragabengoko toponimoek Ziordikoaren osagaiez gain (*zulo* + *haran*) -pe atzizki eratorlea daramatela.

Eginon eta Etxarri Aranatzan ezaguna da *Olano* toponimoa.

Andoinen *Ayurdin* eta Bakaikun *Aitzurdin* dira ezagunak.

Ibargurenen *Txaradoi* toponimoa dugu, Ziordin *Txarigorri* eta Etxarri Aranatzan *Txaigorri* (Txaradigorri) agertzen direlarik. Tracasakoek (IX, 103) horrela diote Ziordikoa aipatzerakoan: “*Txara* (castellano jaral) llaman en vascuence a la espesura formada de árboles jóvenes, y también a la planta joven misma. En muchos lugares aplican el término por antonomasia al tipo de árbol que más se da *in situ*. En esta zona, por ejemplo, (y también en Améscoa, según Iribarren) la *txara* por antonomasia es el haya joven. En definición de Lacoizqueta: ‘nombre genérico de arbolillo o planta de tallo y ramas leñosas, como el arce’”. Guk aipatu ditugun hiru herrietako toponimoen eremuak pagadiak dira. Halaber, Ibargurengo toponimoaren bigarren osagaia baliatzen dute Eginoko *Idaduyetak*, Andoingo *Iraduyetak*, Ziordiko *Sarok* eta Altsasuko *Buztindaik*.

Ibargurengo dugu, era berean, *Bustinaran* toponimoa eta bere lehen osagaia oso erabilia da Nafarroako toponimian Tracasakoek (IX, 39) jaso dutenaren arabera: “Este topónimo (Altsasuko *buztindai* da hauxe), como el que le sigue (*buztintzazuloa*), nos habla de la calidad arcillosa del terreno (vasc. *buztin* ‘arcilla’). La palabra ha pasado como préstamo al castellano de Navarra (*bustín*), donde es muy corriente para designar terrenos arcillosos”. Ikusi dugunez Altsasun *Buztindai* eta *Buztintzazuloa* toponimoak ditugu.

Hurrengo toponimoek bigarren osagaia berdina erakusten dute, *Txumalantegi* Ibargurenen eta *Txikilantegi* Ziordin, eta ondorengo dioten Tracasa-

koek (IX, 104) aipatu osagaiari buruz: “En toda la Navarra de habla vasca llaman *lantegi*, incluso en castellano, a la concesión de aprovechamiento forestal que el pueblo saca a subasta, y también al lugar en el que se tala y junta esa madera. En ciertos pueblos este concepto se opone al de *epaitz*, que es el lote de leña para hogar asignado por el pueblo a cada casa”.

Ardanza eta *ardanzea* ageri zaizkigu Eginon eta Olaztin, azken honi buruz ondorengoa diotelarik Tracasakoek (IX, 68): “*Ardantze* ‘viña’ es término ubicuo en la toponimia vasca de Navarra, lo que nos habla de la extensión antigua de este cultivo hoy mucho más reducido. El moderno *mahasti* ‘idem’, parece reciente en toponimia”.

Azkenik, Urabaingo *Aldapata* eta *Ilarra* toponimoek ere bere kideak dituzte, Bakaikun lehenak (*Andapota*), eta Etxarri Aranatzen bigarrenak (*Illerra*).

ONDORIOAK

Ugari dira lan honetan Arabako Ekialdeko euskararen lekukoen eta Sakanako (Burundakoa bereziki) egungo hizkeraren artean jaso ahal izan ditugun hizkuntza kidetasunak.

Aztertutako material guztietan ageri dira kidetasun hori erakusten duten burutzapenak eta, bereziki, Nicolao Landuchio italiarraren 1562ko lanean. Honetan, egungo Sakanako hizkerarekiko nolabaiteko lotura erakusten duten ehun eta hogeita hamabost burutzapen ageri dira.

Gerardo Lopez de Gereñuk jasotako hitz multzoan, aldiz, hirurogei burutzapeni nabari zaie horrelako kidetasuna.

Gainerako materialetan (Lazarraga, Portal, Gamiz, Garcia de Albeniz), askoz ere lan laburragoak direnez gehienak, ez dira hainbeste ezaugarri komun bi eremuen artean, baina, dudarik gabe, guztietan ditugu aipatzeko moduko kidetasunak, ikusi ahal izan dugun eran.

Eta hau guztia konparatutako bi eremuetako elementuen artean mende-etako tartea egonik. Beraz, honek pentsarazten digu bere garaian, bi eremuetako hizkerak bizirik zirenean, hauen hizkuntza ezaugarriak hurbilago izango genituela, continuum geolektala burutuko zelarik bi eremuen artean, dudarik gabe.

BIBLIOGRAFIA

- Erdozia Mauleon, Jose Luis, *Sakanako Hiztegi Dialektologikoa*, Euskaltzaindia-Nafarroako Gobernu, 2004.
- , *Sakana erdialdeko euskara*, Nafarroako Gobernu, 2001.
- , “Bakaikuko leku-izenak”, *FLV*, 91, 2002.
- , “Euskal testuak Nafarroan XVII. mendean”, *FLV*, 99, 2005.
- González Salazar, José Antonio, *Cuadernos de Toponimia 4*, Arabako Foru Aldundia, 1987.
- Iribarren, J. M., *Vocabulario navarro*, Príncipe de Viana, 1984.
- Izagirre, Cándido, “Altsasuko euskeraren gai batzuk”, *ASJU*, 1967, 45-97.
- Kintana, Xabier, “Joan Perez Lazarragakoaren izkribuaren inguruan”, *FLV*, 97, 1994.
- Knörr, Henrike eta Zuazo, Koldo, *Arabako euskararen lekukoak*, Eusko Legebiltzarra, 1998.
- Perez de Lazarraga, Joan, *Dianea ae Koplak*, Erein, 2004.
- Tracasa, *Nafarroako Toponimia eta Mapagintza*, IX, Nafarroako Gobernu, 1992.
- , *Nafarroako Toponimia eta Mapagintza*, X, Nafarroako Gobernu, 1992.
- Zuazo, Koldo, “Burundako hizkera”, *ASJU*, XXVIII, 297-364, 1995.
- , *Arabarrak euskararen herrian*, Arabako Foru Aldundia, 1999.

LABURPENA

Artikulu honetan Arabako Ekialdeko garai bateko euskara eta Nafarroako Mendebaldeko Sakana haranekoaren (Burundakoa batez ere) arteko hizkuntza kidetasunak aztertu dira. Azterketa burutzeko, XVI., XVII. eta XVIII. mendeko zenbait material (Landuchio, Lazarraga, Portal, Gamiz, García de Albeniz) erabili dira, horietako edukia Sakanako egungo hizkerarekin parekatu delarik. Honetaz gain, bi eremuetako toponimia ere izan da kontuan. Azterketa diakronikoa, beraz, hemen buruturikoa, eta lagungarri suerta daiteke bi eremuen arteko garai bateko *continuum* geolektalaren teoria frogatzeko.

RESUMEN

En este artículo se han estudiado las características comunes del euskara que en otro tiempo se utilizaba en la zona oriental de Álava y el actual del valle de Sakana (el de la Burunda sobre todo) en la zona occidental de Navarra. Para ello se han utilizado materiales (Landuchio, Lazarraga, Portal, Gamiz, García de Albeniz) de los siglos XVI, XVII y XVIII, cuyos contenidos se han comparado con el habla actual de Sakana. Y además de esto, se ha tenido en cuenta la toponimia de ambas zonas. Por consiguiente, se trata de un estudio diacrónico que puede resultar apropiado para evidenciar la teoría del *continuum* geolectal entre ambas zonas en las épocas mencionadas.

RÉSUMÉ

Dans cet article, on a analysé les caractéristiques communes de l'euskara qui était autrefois utilisé dans la zone orientale d'Alava et dans la vallée de Sakana actuelle (notamment celui de Burunda) dans la zone occidentale de la Navarre. On a utilisé pour cela du matériel (Landuchio, Lazarraga, Portal, Gamiz, García de Albeniz) des XVI^{ème}, XVII^{ème} et XVIII^{ème} siècles, dont les contenus ont été comparés au langage actuel de Sakana. En outre, on a tenu compte de la toponymie des deux zones. Par conséquent, il s'agit d'une étude diachronique qui sert à souligner la théorie du *continuum* géolectal entre les deux zones aux époques citées.

ABSTRACT

This article studies the common characteristics between the Basque language which at an earlier date was used in the eastern part of Alava and the language now used in the Valley of Sakana (above all, in Burunda) in the west of Navarra. To this end, material (Landuchio, Lazarraga, Portal, Gamiz, García de Albeniz) from the XVI, XVII and XVIII centuries has been used and compared with the language now spoken in Sakana. The toponymy of both areas has also been taken into account. This is, therefore, a diachronic study which may prove useful when it comes to backing the theory of the geolectal *continuum* between the two areas in the epochs mentioned.